

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Larraun

Aurkibidea

Udalerria: Larraun

Sarrera



Larraun Nafarroako udalerria da, Iruñeko merindadean kokatua. Areso eta Leitzarekin egiten du muga iparraldean, Imotz eta Basaburuarekin ekialdean, Arakil eta Uharte Arakilekin hegoaldean, eta Betelu eta Araitzekin mendebaldean. Lekunberri udalerria Larraunen erdialdean kokatuta dago, baina biak administratiboki independenteak dira. Dena den, Larraungo udaletxea Lekunberrin bertan dago. Hamasei herrik osatzen dute udalerria: Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astitz, Azpirotz, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Uitz. Argazkian Aldatz udalerria.

- **Biztanleak:** 1.002
- **Euskaldunak:** %84,55

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **25**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **7**
- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Lauaizeta BHI Ikastetxea. 'Bake Hari Izpiak' proiektua
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Kontxita Arangoa (1940)

Juan Arangoa Astiz (1901)

Allin (Larraun) jaioa 1901ean. Ama zuen bertakoa; aita, berriz, Beruetekoa, Basaburukoa.

Joxe Migel Argiñarena Otamendi (1948)



Joxe Migel Argiñarena 1948ko apirilaren 18an jaio zen, Errazkinen. Errazkingo Bengoetxeakoa zuten aita, eta ama, aldiz, Gaintzakoa (Nafarroa), "Matxindon" baserrikoa. Hamabi senidetan hamargarrena da Joxe Migel. Errazkingo kontuak esaten ditu Joxe Migelek elkarrizketan, 9 urterekin Mailopera behiak jeztera pozik joaten zen ume garaiko kontuetatik hasi eta egungoetaraino. 16-17 urte inguru zituela Donostiako aroztegi batean hasi zen lanean, eta bertara ezkonduko zen gero. Egur-lanei lotuta egin du bizibidea, eta egun lantegi baten jabe da. Beti izan du pilotarekiko zaletasuna Joxe Migelek, eta Errazkin garai batean pilotari profesional asko emandako herria izaki, aipagai ditu pilota kontuak ere. Bertsolaritzaz ere mintzatu da, nola ez. Hura izan du zaletasunik handiena bizitzan. Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapela hiru bider irabazitakoa da Joxe Migel, 1979, 1982 eta 1986 urteetan, hain justu ere, eta hamaika plaza eta lagun-artean kantatua. Kantulagunak ere gogoan ditu, asko eta asko. Esaterako, Mitxelena, Lazkao Txiki edo Xanti Zabala, besteak beste. 1967-1978 urte bitartean ez zen txapelketarik izan Nafarroan, eta ongi gogoan du Joxe Migelek Txapelketa berrabiatu behar izan zuteneko garaia ere.

Julian Azpiroz (1918)

Martin Azpiroz (1933)

Bixi Azpiroz Iriarte

Jesusa Eguzkiza



Felix Elizalde Matxinandiarena (1944)

Gurasoak Errazkinen bizi ziren eta baserrian aritzen ziren. Bederatzi senidetan laugarrena zen bera. Bost urterekin Betelura joan zen, izeba-osaben etxean bizitzera. Kamiolari lanetan aritua. Rosa Maria Baldarekin ezkondua, bi seme-alaben aita.



Maria Dolores Ezkurdia Barasoain (1945)

Mattin Galarza Ezkurdia (1940)



1940ko irailaren 4ean Uitziko Txurdanea etxean jaioa. Bi gurasoak nekazariak: aita Uitzikoa eta ama Gorritikoa. Zortzi senidetan bosgarrena da eta bere sorterrian bizi izan da beti. Gaztetandik mendian lanean ibilia: lehendabizi Amasa eta Alkizan eta geroago Lleidan, Frantzian eta atzera Euskal Herrian, harik eta 34 urtetan Leitzan, fabrikari, enplegatu zen arte. Oso kirolzalea, lasterka-apustuak eta aizkora-apustuak egin izan ditu, baita irabazi ere bat baino gehiago.

LRN-002 Hizlari ezezaguna

Arruizko Petrinea etxean bizi.



Juana Olaetxea Iturbe (1932)

Manoli Olaetxea Iturbe (1940)



Uitzin sortua, 1940ko urriaren 30ean, Maisterretxea etxean (Marinea ere deitua). Uitzin bizitua 67 urte zituen arte, Lekunberrira aldatu baitziren bera eta senarra. Zazpi senidetan bosgarrena da. Aita Uitzikoa zuen eta saltzaile ambulantea zen; ama berriz, Bedaiokoa, nekazaria. Betidanik baserriko lanetan aritua. Gaur, Lekunberriko irratan badu bere tartetxoa eta irrintzilari aparta da.

Matias Sorabilla (1926)

Engraxi Urriza Zubitur (1934)



Uitzin (Larraun) jaio zen eta ezkondu arte bertan bizitu zen. Ezkonduta, Zubietara (Nafarroa) joan zen bizitzera eta bere bizitzan zehar etxeko -eta baserriko- lanez arduratu izan da. Lekarozko institutuko ikasleek egin zioten elkarrizketa.

Fermin Zarranz Apeztegia (1931)

Madotzen (Larraun) jaioa 1931n. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Egjarretakoa (Arakil).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Elurretarako "korraletak"

- **Hizlaria(k)**: Zarranz Apeztegia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: LRN-007/001
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Elur gainean ibiltzeko "korraletak" erabiltzen ziren. Mendian asko ibili izan dela haziendarekin dio.

Transkripzioa

- Badakizu? zera, elurraren gainean-eta ibiltzeko, korraletak edo, aditu duzu esaten?
- Bai, bai, batto, bado orrek ee, bai... izena, korraletak, ebiltzen tzittiin ee...
- Eta forma, raketa bezalakoa edo?
- Bai-bai, raketa bezalako... ankan, jartzen tziin? da... ta soka batzukën lotö ta, eramaten tzeen.
- Eta nola basea handiagoa duen, ez da hainbeste sartzen oina elurretan; hola da, ezta?
- Ola, ola, ola...
- Eta errazago ibiltzen da...
- Hombre! diferentziik ez, diferentziik ez; orrekën ee, elurr aundi ona bat ee... denbo askoan, eltzen tze emendik! jode!... ezpaita, asentatzen baita! ue, lurre, beira... ezta apaltzen!
- Eta izena nola esan duzu orduan?
- Korraletak, korraletak itzenen dee, baietz...
- Bai, e?
- Zergätti izen-klase oë, aitzen nun nëk.
- Eta ez al zenuen kontatzeko nola ibiltzen zinen behien bila, San Migel inguruan eta?
- Ze? oñes?

- Bai.

- Mendin asko! je, egon ta emendëk San Migela, oñes askotan juan gaa, juaten giñenen betë oñes juaten giñen!

- Behiekin edo?

- Ez-ez! e... geina azienda billatzea, emendëk eëltzen tzeen da, Uartekoa... or, mendi, emen, mugatzen duna... amabos pei igual paastu? ta, bakarron batzuk igual juan-da... urbildu ta esia pastuta dakala ta...

- Eta hemengo behiek hemengo dermioan egon behar zuten?

- Bai.

- Eta noizean behin bat edo beste pasatzen zen...

- Bai, ori beti izandö a ta, angoak ee onea... askotan.

- Ez dago hesiturik?

- Bai, alanbratue zeon ori baño, ause in da asko ta... iixte maen ba, ja! uartearrak iixten tziun orë; alanbreak ee... galdo dee ta, erdoittö ta zarto're ta, oste-gauzez eta... gastu asko izaten da ori, ixtuen ee ta, oain mendietaa lenao, mendiä ematen tzee erreire baño, oan eztao, olakoik!... ah, oain... mal tierra, merke dao.

- Eta zu korraleta horiekin ez zara ibili?

- Neone enai-, ez naizen ez.

- Eta zuk nor duzu buruan, nor ikusi duzu horren gainean ibiltzen? aita edo hemengo beste gizonen bat edo...?

- Bai, nere, jeh! nere bezalako at, ta, orrek ere!... ori eeltzen tzen, noizinbeñ ola... juanda; asko ez baño...

2. Iritziak

2.1. Gazte-denborako giroa Madotzen

- **Hizlaria(k)**: Zarranz Apeztegia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: LRN-007/002
- **Iraupena**: 0:04:49. **Hasi**: 00:03:11. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Sei anai-arreba ziren. Hika hitz egin izan dute. Auzoko batek hamazazpi ume izan omen zituen. Garai bateko bizimodua Madotzen. Herriko mutil kuadrilla. Gazte-denborako giroa.

Transkripzioa

- Eta anai-arrebak izan dituzu?

- Bai, bai; sei, sei izandu ga.

- Horregatik ere ikasi zenuen ongi, hiketan-eta, hitz egiten...

- Ba, ala...

- Aspaldi egon nintzen (zurekin); anai-arrebari eta... to eta no eta (galdezka)...

- Elkarrekën betë iketan? asike...

- Denbora hartan, gainera, ia etxe guztietan sei-zortzi ume izaten ziren...

- Bai-bai-bai-bai, jenealin, jenealin lau eo iru, emen... bezino onek izandö zittun? amazapë.

- Hamazazpi?

- Amazapë... fixin baen (?) saille, majiña at kasta eratzen!...

- Joño! non dira horiek, non dabilta orain?

- Il ee, franko eën dee ba!... bah! batzuk monja, beste atzuk ee... ezkondu, beste atzuk ee, il deenak franko.

- Hemen bada baten bat, herrian?

- Oain eztao bat ee, juan tzeen-ta. Iruñea juan tzeen da, ta or dabilte oräi're... noizi mein etortzen da, baia askotan ez, oain ee ez.

- Eta zure haurtzaroan zenbat familia zeuden hemen bizitzen? igual hamabi edo, ez?

- Bai, bai, urdun etxe guzitan baitzeen ta, gaiñea, etxe... bi o iru etxek ee, maixtarrak eo bazittiin, beste etxe, etxe eta, best etxe kozkorren bat, ta... oitan... bizi tzeen, meo oan? oain denak alde in tziin.

- Beraz, hamabi etxe baino gehiago badira herri honetan...

- Bai, urdun ee... etxe koxkor oek; emen ee, or... etxe koxkor bat-ta dago or, ola... pobre, e? bizittu izan da (...), kaminero at ta, bizittu izandu zela ta...

- Eta karrikan, umeak korrika eta builaka, orduan hainbeste ume, e?

- Bueno! urdun, urdun ee...

- Orain ixil-ixil daude herri hauek...

- Klaro ba! baia ya oai, eztao iñorr e eta! eztao iñor; jendien... jolasa, laixterren zenbat aldës joaten giñen emendë, attetama siestaa igual-da, ddio! ni ixil-ixille, atalgañe-tarte artan, ddiiia! laixter e plazaa, ta plazaa te, espartziñek ausatus, pozten giñen askotan!... pillotan ere ta... Ah, bai, gazte guzii tenak elkarrakën juatez, ixkiñe atzuk? beste (b)atien e... or ebëltzen giñen, urdun kuadrille bat giña(n)... bai, mutilletan sartu giñenen gu? eztakët ori... emezortzi urtetan eo ola, sartö giñen kuadrillaa, beste ezer bea(r) ta, emezortzë o sartö giñe.

- Hemezortzi neska-mutil edo?

- Ez, ez, mutillek bakarrik, mutilläk.

- Hemengo? herriko kuadrilla?

- Bai-bai, ah! ez sekula ainbeste ondo-ta!

- Taberna bazen orduan?

- Urdun bazen bai, auzko... etxe oietan? ba izaten tzuten.

- Jai egunetan-eta, baxoerdi batzuk artuz eta kantuz eta... ze giro, e?

- Gizon zarrak ee or dae, musie, sardintzar bat jokatuko baziin ee? pues kartan atsalde guziin, pintte at ardo o anis... olaxe aitzen tzeen.

- Eskola bazen orduan hemen, herrian edo?

- Exkola? bai, guri... guri ematten tziun.

- Ez zenuten joan behar Astitza edo?

- Ez, ez; etxe aundi ortan? apez a esan dotena ta Sen Mel aingeruu juaten dena ta or(s), or maestra ere orr eoten tzen, beraki jute zun (!) apezak, ori, maestra... umentzat eta; orrea juaten giñen, eskola(a), orr ekasi giñön.

- Eta beste gauza bat, bukatzeko: San Migeli kantatzen zenioten?

- Bai, oexe!

- Nolako kantua? gogoratzen zara nola den?

- Je! nek, kantazaleak dienak ta...

- Bueno, baina, laburra bada...

- San Migel aingerurë kantatö in tzeon, etortzen tzenak kantatzen baitzeo: "Migel, Migel... buru zera? edo..."", eh!

- "Migel, Migel, Migel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria" edo horrelako zerbait?

- Bai, bat kanta ere asten denean? segidoan segitzen deu, baño gaiñekoan? bakizu (...).

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lan ibilbidea: baserriko lanak, mendikoak eta lantegikoak (LRN-011/002)

Soro asko zegoen eta lan handia. Hamabost-hamasei urterekin auzolanean aritzen zen mendiko lanetan. Hamasei-hamazazpi urtetan, Amasara joan zen lanera, eta handik Alkizara. 1959an Lleidara joan zen mendira lanera. 1960an eta 1973an Frantziara joan zen, mendian lan egitera. Otsondon eta Iratin ere aritu zen; gero Gipuzkoan. 1974an lantegian hasi zen.

2. Mendiko lanak, esku-zerrarekin, aizkorekin eta idiekin (LRN-011/006)

Mendian, esku-zerrarekin mozten zituzten zuhaitzak eta eskuz kargatzen zuten kamioia. Menditik karga-lekura mandoekin edo idiekin eramaten zituzten enborrak. 1970 inguruan hasi ziren traktoreak.

3. Aizkorarekin koska, zerrarekin moztu (LRN-011/007)

Aizkorarekin koska egiten zieten eta gero zerrarekin, trontzarekin, bi lagunen artean, mozten zuten. Hasierako makinek baino eskuz bizkorrago kargatzen zuten.

4. Artoaren eta babarrunaren lanak (LRN-011/008)

Soroetan lan asko izaten zuten. Artoaren eta banabarraren lanak esaten ditu.

5. Lasterka San Migelera (LRN-011/009)

Erronka jo eta Lekunberritik San Migelera igo zen, Markos Zabaloren errekorra gaindituz. 59 urte zituen. Gauetz ilunpean ibiltzen ziren elkarrekin mendian, prestaketan.

6. Lekunberriko bestetan aizkoran (LRN-011/010)

Markos Zabalo aizkoran aritzen zen. Bestetan Mattin ere aritzen zen aizkoran. Lekunberrin aritu zirenekoa kontatzen du.

7. Arroizko "Txikito" lasterkaria (LRN-011/011)

Arroizko "Txikito" lasterkari ikaragarria zela dio. Apustueta aritzen zen.

8. Garia eultzitzen larrainean (LRN-011/013)

Eultzitu egiten zuten larrainean garia. Artazia izeneko tresnarekin pasatzen zuten garia, idiek lagunduta. Biradera batekin zebilen makinan pasatzen zuten gero alea, garbitzeko. Herri osoan larrain bakarra zen beraien etxekoa eta hainbat etxetakoak joaten ziren bertara.

9. Arbia behientzat, lizar hostoa ardientzat (LRN-011/014)

Artoa jorratzerakoan, arbia ereiten zuten eta neguan ateratzen zen. Behiei emateko izaten zen. Ardientzat lizar hostoak lehortu eta neguan ematen zizkieten.

10. Zurikina eta arto-lastoa behientzat (LRN-011/016)

Artoa eskuz zuritzen zuten, taldeka. Zurikina behiei ematen zieten eta arto-lastoa ere bai. Etxerik etxe ibiltzen ziren elkarri laguntzen.

11. Olaetxea, batetik bestera ibiltzen zen saltzailea (LRN-011/017)

Kantuz ibiltzen ziren arto-zuriketan. Alorrak gutxiago jarri eta abereak gehitu zituzten, bera gazte zela. Manoli Olaetxearen aitari buruz hitz egiten du; batetik bestera aritzen zen saltzailea zela dio.

12. Mojak maistra eta erizain (LRN-011/019)

Eskolan dena erdaraz egiten zen. Apaiza euskalduna zen. Kontatzen du mojek mesede asko egin zutela herrian. Mojei egurra txikitza joaten ziren.

13. Lagunartean beti euskaraz (LRN-011/021)

Gurasoek bazekiten erdaraz. Lagunartean beti euskaraz egiten zuten.

14. Iralekuak eta metak (LRN-011/023)

Udazkenean iratzezko metak egiten zituzten, berrogei inguru. Behar zenean, gurdiarekin bila joaten ziren. Azpigarritarako onena dela dio. Iratzearen sinonimoak esaten ditu. Iralekuak gertu izaten zituzten.

15. Ihauteetan puska eske, San Juanetan ospakizunak (LRN-011/024)

Ihauteetan hiru-lau egunez aritzen ziren eskean, puska biltzen, etxez etxe soinuarekin. Janaria ematen zieten. Bere aurrekoek oiloa lapurtzen zuten. San Juan bezperan afaria eta egunean dantzaldia izaten zuten. Letxuga lapurtzen aritzen ziren ordurako. Igandetan dantzaldia egiten zuten.

16. Festatan pilota partidak, txistua eta akordeoia (LRN-011/025)

Bere gazte garaian ez zen bertsolari asko izaten. Festatan pilota partidak izaten ziren. Txistua jotzen zuten frontoian eta akordeoia ere bai. Herriko musikariak izendatzen ditu.

17. FERIA Lekunberrin, Irurtzunen eta Tolosan (LRN-011/033)

Feriara behiak eta ardiak eramaten zituzten. Irurtzunen txerri-feria handia izaten zen, asteartero. Tolosako plaza zaharrean ere feria handia egiten zen.

18. Bularretak elurretarako (LRN-011/035)

Bularretak erabiltzen zituzten elurretarako. Egurrezko tresnak izaten ziren, oinetan jartzen zituztenak.

19. Urteberriko koplak oihartzuna Larraungo Allin (LRN-012/001)

Urteberri egunean kantatzen ziren koplak.

20. Madozko San Juan bezperako leloa, jada ahantzia (LRN-013/001)

San Juan bezperako sua. Gainetik salto egin eta zer esaten zen.

21. Uitziko San Juan bezperako lelo bitxia (LRN-014/001)

San Juan bezperako kanta. Sua egin eta gainetik saltatzen zen. Zer esaten zuten.

22. Uitziz: Gabonetako kanta (LRN-014/002)

Gabonetako kanta.

23. Sakana aldeko kopla ezagunak Uitzin ere (LRN-014/003)

Hainbat kopla kantatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com